

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2016ko uztailaren 1eko erabakiaren laburpena- aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko laguntza ekonomikoak tarteko, udalerrian enplegua egonkortzeko udal programaren deialdia onesten duena. 2016. urtea

BDNS (identifikatzailea): 311398

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> eta Gasteizko Udalaren web-orrian <http://www.ayuntamientovitoria-gasteiz.org> kontsulta daitezke.

Lehena. Onuradunak

Gasteizko udalerrian diruz lagun daiteken jarduerak zuzenean egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, ondasun-erkidegoak edo bestelako ekonomi unitate edo ondare-bereiziek, nor-tasun juridikorik izan gabe ere, aldi baterako kontratuak lanaldi osoko eta partzial (lanaldiaren ehuneko 50 gutxienez) bihurtu badute.

Bigarrena. Xedea

Gasteizko udalerrian enplegua egonkortzea, aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtu ahal izateko laguntza ekonomikoak tarteko

Elkarren arteko lehia erabiliko laguntzak emateko prozedura gisa.

Hirugarrena. Oinarriak

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko uztailaren 1ean egindako ohiko bilkuran onetsiak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza-deialdi honek laurehun mila euroko (400.000,00 euro) zuzkidura du, 2016rako onetsitako 0823 2411 489.67 "kontratatorako laguntzak" aurrekontu-partidaren kontura.

7.000,00 euroko laguntza izango da aldi baterako kontratua lanaldi osoko mugagabe bihurtzen den bakoitzeko. Baldin eta kontratua lanaldi partzialekoa balitz, laguntza ere lanaldiaren proportziokoa izango da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia onesteko iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2016ko urriaren 15ean bukatuko.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 4an

Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zerbitzu burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI